

2024-2025. Jarduera bereziak – Actividades especiales Abenduak 3 Diciembre

FORMATU ETA KOLABORATU: BERTOL ARRIETA [Euskaraz]

Non: *Carlos Santamaria Zentroa (Antonio Beristain Auditorioa)*
Ordua: 11:00-12:00

Bertol Arrietaren film laburrak edo "nola egin zinema xoxik gabe"

Bertol Arrieta agian ezagunagoa da literatura-munduan ("Gezurra berdaderoa" (Elkar); "Hodeien gaineko aldean" (Txalaparta), Alter ero (Susa) eta beste hainbat liburu argitaratu ditu), baina zineman ere egin du bere ibilbidetxoa, modu nahiko berezian bada ere: kasik aktorerik gabe, kasik laguntzailerik gabe, kasik dirurik gabe.

Euskararen egunaren aitzakian, gurean izango da Arrieta, eta bere hainbat film labur proiektatuko dira. Gainera, bere sorkuntza-prozesua azalduko du egileak. Emanaldiaren ostean, solasaldiaren eta galdera-erantzunen txanda izango da.

IKERKUNTZA EZAGUTU – CONOCE LA INVESTIGACIÓN: *Praktikak Ikerkuntza Taldeetan [Euskaraz - Gaztelera]*

Non: *Informatika Fakultatea. Ada Lovelace*
Ordua: 9:30 – 10:30

Graduko Praktikak. Fakultateko Ikerketa taldeen aurkezpena

Graduko praktikei buruzko informazio saioa izango da. Praktikak noiz, non eta nola egin daitezkeen azalduko da. Jarraian Fakultateko ikerketa taldeen aurkezpen txiki bat egingo da bakoitzean egiten den lana ezagutzera emateko.

Prácticas de Grado. Presentación de los grupos de investigación de la Facultad

Sesión informativa de las prácticas de grado en donde se responderá a preguntas como cuándo, dónde y cómo se pueden realizar las prácticas. A continuación se hará una pequeña introducción de los grupos de investigación de la Facultad.

2024-2025. Jarduera bereziak – Actividades especiales Abenduak 3 Diciembre

FORMATU ETA KOLABORATU: SOFTWARE LIBRE TALDEA [Euskaraz]

Non: Informatika Fakultatea. 3.1 gela (goizeko saioak) eta 1.1 gela (arratsaldekoak)

Software Libre taldeak antolatutako jardunaldia

10:00 - 11:30 Hitzaldiak (bakoitza 10min+5min galderak) (3.1 gela).

11:30 Kafea

12:00 – 13:00 Mahi-inguru bat software librearen egoerari buruz fakultatean eta EHUn (3.1 gela).

13:00 – 15:00 Bazkaltzeko denbora

15:00 – 17:00 Super Tux Kart txapelketa (1.1 gela)

17:00 – 19:00 Kode txapelketa (1.1 gela)

19:00 – 19:30 Ekitaldiaren amaiera (1.1 gela)